



Iraunkortasunabuletina

Asteazkena, 2024ko urtarrilak 31

Zenbakia: 05

DEIALDIA

Oriandik egin gabe duzu zure GrAL edo MAL?

Iraunkortasunaren arloko Zuzendaritzak UNICITIES 2030 proiektuan parte hartzen du. Egitasmo honek klima-neutraltasuna helburua duten GrAL edo MAL egiteko laguntzak eskainiko ditu. Deialdia datozen egunetan argitaratuko da gure [webgunean](#).



EHUagenda 2030



GJHetan laguntzen duen 2023 ekoizpen zientifikoa kontsultagai

Gure [webgunean](#) EHUren 2023ko ekoizpen zientifikoaren bilduma duzu eskuragarri, EHUagenda 2030 osatzen duten Garapen Iraunkorreko Helburuei (GJH) laguntzen diena, hain zuzen.

ALBISTE INTERESGARRIAK

Gustatuko litzaizuke COP28aren inguruan dena ezagutzea?

Donostia Sustainability Forumek hitzaldi irekia, presentziala eta online, egingo du otsailaren 1ean, klima-aldaketaren aurka borrokatzeko Nazio Batuen 28. Aldeen Konferentziaren (COP28) emaitza nagusiak aztertzeko. Hizlaria María José Sanz izango da, BC3, Basque Centre for Climate Change ikerketa zentroko zuzendari zientifikoa.



Garapen Iraunkorreko Helburuei beste begirada bat

Bizitze Onaren Helburuen egitasmoaren bidez, GJHen kritika eta proposamen alternatibo transmodernoa egiten da. Zuzenbide Fakultateak prestakuntza teoriko-praktikoa eskainiko du otsailaren 1ean eta 2an Donostian. Ana Patricia Cubillo Guevara (Valentziako Unibertsitatea) eta Antonio Luis Hidalgo Capitán (Huelvako Unibertsitatea) izango dira formakuntzaren hizlariak. Eman izena [hemen](#).

HURRENGO EKITALDIAK

Ez galdu!

2024/06/06 – 2024/06/07. [Conferencia Internacional Socioecos. Cambio climático, sostenibilidad y prácticas socioecológicas.](#)

2024/06/20- 2024/06/21. [KulturGest Bilbao Kongresua: ARTEA, KULTURA ETA ONDAREA: kudeaketa eta jasangarritasunerako praktika egokiak.](#) Matrikula egiteko epea laster irekiko da.

2024/07/03 – 2024/07/05. [SEED. International Conference on Sustainable Energy Education.](#)

2024/09/08 – 2024/09/10. [VI annual International Higher Education Summit Conference \(HES\).](#) Deadline for submitting abstracts: 2024/03/30

2024/10/23 – 2024/10/24. [Klima Aldaketa eta Itsasertzari buruzko mugaz gaidiko VI. Kongresua.](#) Komunikazioak bidaltzeko epea: 2024/05/01